



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## **Jerusalem Quartet musika talde prestigiotsuak eta Hila Baggio sopranoak Varsoviako Yiddish Cabaret-aren abesti bilduma eder bat interpretatuko dute**

- Kontzertua igandean izango da, maiatzaren 2an, eta jendea bidaia musikal batean eramango du, Europa erdialdeko gerren arteko garaiko musika judu inspiratuaren bitartez.
- Jerusalem Quartet eta Hila Baggio-ren emanaldiarekin irekiko da Arriaga Antzokiak Guggenheim Bilbao Museoaren *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketari lotuta prestatu duen programazio berezia.

**Bilbo, 2021eko apirilaren 29a.**- Arriaga Antzokiak igande honetan, maiatzaren 2an (19:00etan), eskainiko du Guggenheim Bilbao Museoan maiatzaren 7tik aurrera ikusgai izango den *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketarekiko paraleloan eta haren osagarri gisa prestatu dituen zazpi ikuskizunetatik lehena. Eta lehen hitzordua, gainera, maila gorenekoa da, izan ere, bi protagonista izango ditu, batetik, **Jerusalem Quartet**, nazioartean prestigio handia duen musika taldea, eta, bestetik, **Hila Baggio** soprano israeldarra, bere ahots pribilegiatuari esker mundu osoan zehar kritika bikainak eta txaloak jaso dituena.

Alexander Pavlovsky eta Sergei Bresler (biolinak), Ori Kam (biola) eta Kyril Zlotnikov (biolontxelo) dira Jerusalemgo Laukotea osatzen duten musikari bikainak. Taldea, ohiko gonbidatua da munduko kontzertu-aretorik onenetan. Ipar Amerikan, laukoteak hainbat hiritan jo izan du: New Yorken, Chicagon, Los Angelesen, Filadelfian, Washingtonen eta Clevelanden, baita Raviniako jaialdian ere. Europan ere laukoteak arrakasta handia lortu du musika-tenplu nagusietan, hala nola Londresko Wigmore, Zuricheko Tonhalle, Municheko Herkulessaal, Parisko Theatre des Champs-Élysées eta Auditorium du Louvre eta Hamburgeko Elphilharmonic aretoetan, baita Salzburgeko, Verbierreko, Schleswig-Holsteineko, Schwarzenbergeko Schubertiade, Rheingauko eta San Petersburgeko jaialdietan, besteak beste.

2019ko udaberrian, laukoteak album paregabea argitaratu zuen, zeinak musika judutarra aztertzen baitu, baita musika horrek gerra arteko Erdialdeko Europan eta, ondorioz, bigarren mundu-gerraren osteko Estatu Batuetan izandako eragina ere. Hila Baggio sopranoak bere ahots dotore eta garbia eskaini du Varsoviako 1920ko Yiddish Kabareteko kanta-bilduma ederra abesteko. Laukoteak Leonid Desyatnikov konpositoreari eskatu zion kanta horietarako konponketak egin zitzaizkion. Programa osatzen duten piezak, beraz, hauek dira: Schulhoff-en bost piezak (1924), kabareteko pieza labur eta arinen bilduma bat eta Korngold-en 2. zenbakiko laukotea (1937).

### **Urte eroak, 1920ko hamarkada**

Komeni da gogoraraztea Guggenheim Bilbao Museoaren eta Arriaga Antzokiaren arteko elkarlan hau Calixto Bieito Arriaga Antzokiaren zuzendari artistikoaren

inplikazioaren bidez sortu zela, berak egingo baitu maiatzaren 7an Museoan inauguratuko den *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketaren diseinua. Elkarlan horren helburua da, alde batetik, erakusketaren eszenografia aberastea, Bieitoren zigilu pertsonala emanaz, eta, bestetik, bi erakundeen arteko elkarriketa Arriaga Antzokira hedatzea. Bertan, ikuspegia zabaltzen duten eta erakusketaren osagarri diren zazpi ikuskizun eskainiko dira. Igandekoa dugu aurrenekoa.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 11 eta 25 euro artean (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean, 946 850 850 telefono zenbakian edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)